

Herri Aldizkaria

Otamotz

2000ko maiatza 57. alea

Antzerki Astea ki



IRITZIZ-IRITZI: J.M. BEREZIARTUA
ERREPORTAIA: ZENTRAL EOLIKO BERRI BAT SAMIÑO INGURUAN?
IZERDI PATSETAN: PILOTA ESKOLAK



UROLA GARAIKO LANBIDE ESKOLA



943 72 54 77

❖ BATXILERGO TEKNOLOGIKOA "D" ereduari
BACHILLERATO TECNOLÓGICO modelo "A"

❖ GOI MAILAKO ZIKLOAK (2.000 orduko zikloak)

Mekanizazio bidezko produkzioa: bi ikasturte.

Erregulazio eta kontrol sistema automatikoak: bi ikasturte.


Industri ekipoen mantentimendua: bi ikasturte.

❖ ERDI MAILAKO ZIKLOAK (2.000 orduko zikloak)


Mekanizazioa: bi ikasturte.

Ekipo eta instalazio elektroteknikoak: bi ikasturte.

Ziklo amaieran lan praktikak burutzen dira enpresetan.



Urola Garaiko Lanbide Eskolan aurki dezakezu





50 hamarkadan Zumarragako monjen eskolan, misiolarien eguna zela eta, San Francisco Jabierren irudiarekin ateratako argazkia. Goitik behera eta ezkerretik eskubira:

1. **ilaran:** M^a Ignacia Aldalur, Arantxa Garate, M^a Clara Álvarez, Gregori Andueza, Itziar Pérez, Maritxu Mendizabal, M^a Cruz Cuadrado, Espe Arrizabalaga, M^a Carmen Hernández, M^a Carmen Albisua, M^a Dolores Madina, Begoña Ormazabal, Rosarito Albisua eta M^a Angeles Mendizabal.
2. **ilaran:** Maite Antia, Puri Berasategi, M^a Josefa Badiola, M^a Carmen Zaldúa, Begoña Fernández, Nieves Badiola, Maite Badiola, M^a Paz Plazaola eta M^a Luisa García.
3. **ilaran (erdialdeko 4 txikienak):** Josetxo Albisu, M^a Victoria Albisu, M^a Angeles Albisu eta Arantxa Orbegozo.
4. **ilaran:** M^a Jesús Mendizabal, Arantxa Garijo, M^a Isabel Arrizabalaga, M^a José Orbegozo, M^a Jesús Orbegozo, M^a José Garijo, Angeli Badiola, Rosarito Mendizabal, Paqui Fernández eta M^a Luisa Irizar.



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila eta Hizkuntza Politikarako Sailordetzak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Departamenduak, Urretxuko udalak eta Zumarragako udalak emandako diru laguntza jaso du

Argitaratzailea: Zintzo Mintzo Euskaltzaleen Elkartea, Labeaga kalea 12, 20700 Urretxu. Tel:943725775

Koordinatzailea: Asier Zaldúa **Erredakzio kontseilua:** Unai Alzelai, Aintzane Arizmendiarrrieta, Jon Balenziaga, Gorka Erostarbe, Jonmikel Insausti, Jon Ormazabal, Amaia Pildain, Marian Toledo, Asier Zaldúa.

Diseinua: Sebas Iturrioz. **Informatikaria:** Jonmikel Insausti. **Inprimategia:** GOI DESIGN - Zumarraga

Lege Gordailua:SS-742/96 **ISSN:**1136-7318 **Tirada:**2.000 ale. **Edizio digitala:** <http://www.geocities.com/Athens/Delphi/2202>

Otamotz aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



Mutua General de Seguros

Jose Luis Balenziaga

Areizaga, 3 URRETXU tel:722599

Gizarte Zerbitzuetako Foru Diputatua Urretxun

Gizarte Zerbitzuetako Foru Diputatua den Máximo Goikoetxea Urretxun bildu da hilabete honetan Pello González alkatearekin eta Luis Molina zinegotziarekin hirugarren adinekoekin zerikusia duten gaiak lantzeko. Eguneko Zentrua eta Jubilatuen egoitza bisitatu ondoren, prentsaurrekoa eskaini zuten Urretxuko udaletxean.

Bertan Goikoetxeak, populazioaren zahartzea dela eta, hirugarren adinekoei zuzendutako lana eta hau burutzeko aurrekontuek gora egingo dutela esan zuen. Behar bezalako zerbitzua eskaintzeko eginbehar nagusi batzuk azpimarratu zituen: hirugarren adinakoekiko kultura berria sortu eta zerbitzuak ugaltzea.

3. adinekoak bizitza osoa eman duen ingurutik eta harremanetatik ez urruntzea funtsezkoa duenez, etxez etxeko laguntzak eta eguneko zentruen lanak berebiziko garrantzia du. Urretxuko Eguneko Zentrua txikia gelditzen ari da eta dirudienez Foru Aldundiak dirulaguntza eskaini dezake behar diren lanak egin ondoren jende gehiago har dezan.

Dena den, zenbait zaharrek beste mota bateko laguntza behar dute eta horientzat zaharren-egoitzak eta pisu tute-latuak beharrezkoak dira. Datozen urteetan Foru Aldundia hauek berrantolatzen saiatu behar da denentzat lekua izan



Máximo Goikoetxea Urretxuko udaleko arduradunekin.

dadin. Bestalde, Sendia izeneko plangintzaren bidez laguntza psikologikoa, eta sendiei asteburuetan zaharrez arduratuko den jendea eskainiko zaie.

Baina, honetaz guztiaz gain, hirugarren adinakoekiko ditugun jarrera eta aurriritziak aldatu behar ditugula azpimarratu zuen bereziki Máximo Goikoetxeak. Bere ustez askotan beraietako askok zein gazteagoek ezertarako balio ez duten ustea dute eta hori ez da horrela. Hau aldatzeko hirugarren adineko jendea

gizarte zein kultur ekimenetan partaide egin beharra dugu. Helburu hauek guztiak lortzeko Foru Aldundiak hurrengo lau urteetan 30.000 milioi inbertitzeko asmoa du.

Prensaurrekoa amaitzeko Pello Gonzálezek, Urretxuko alkateak, orain arte eskualdean hirugarren adinekoen beharrak asetzeko ahalmena izan dugula azpimarratu zuen; baina egun eskaria eskaintza gainditzeko zorian dagoela ere onartu zuen.

Angolarrei laguntza

Angolako Luanda hiriko Merzedariak Zumarragatik bidalitako kontenedorea; janariz, sendagaiez, eskolako material ez eta erropaz beterikoa; jaso dute. Honen guztiaren bilketa Gabonetan egin zen El Salvadorgo eta Andra Maria Igokuntzako parroketan, beste hainbat herrirekin batera, eta Luandako umezurtz-etxe bateko haurrentzat bidali da. Umezurtz-etxe honetan gerraren ondorioz gurasoak galdu dituzten 250 haur bizi dira Merzedariarekin eta kontenedorea jaso bezain laister eskutitz bat bidali diete Zumarragako monjei herri osorari eskerrak emanez. Zumarragako monjek ere herritarrei eskerrak eman nahi dizkiete eta jada Perukoei laguntzeko lanetan dabiltza. Oraingo honetan Luandara bidali ezin izan zituzten 50 kaxa Hego Amerikako herrialde honetako hiriburura bidaliko dituzte.

Antigua Abesbatzak

Dulantziko Vocalia Taldeak ahots berdinekoen arteko lehiaketa irabazi zuen eta honenbestez 150.000 pezetako saria eta Madrilgo Griñón herrian ospatuko den Kantu Koraleko III. Sari Nagusian parte hartzeko aukera irabazi zituen. Ahots mistoko lehiaketa, berriz, entzuleak oso gustura utzi zituen Iruñeko Sine Nomine koruak irabazi zuen. Gaztetxoen mailari dagokionez, aurten erakustaldia izatera pasa da eta urrezko domina Gernikako Gaudeamus abesbatzak irabazi du.

Antigua Abesbatzak kantu lehiaketa urtetik urtera hazten ari da eta laugarren urte honetako berrikuntza nagusia Euskal Herritik kanpoko taldeen parte hartzea izan da. Dena den Pontevedra, Errioxa eta Valladolidtik etorri diren hiru abesbatzek ezin izan dute saririk lortu, saritutako hiru abesbatzak Euskal Herrikoak izan baitira.

Zumarragako udalbatza

Zumarragako Udaleko udalbatzak Zelai-Arizon antzokiko lanen bigarren epeari hasiera ematea eta Santa Isabelgo eta Elorriaga eta Gazte Zentrurako ur deposituak egiten hastea onartu zuen. Antzokiko bigarren epeko lanak, lehenengoak bezala, NECSOK egingo ditu eta 170 milioitako aurrekontua du. Santa Isabelgo ur deposituaren lanak Construcciones Jorge Martín Nietok egingo ditu eta aurrekontua 11 milioitakoa da. Udaletxeko alderdi guztiak bi lan hauek hastearen alde agertu ziren, baina Elorriaga inguruak eta Gazte Zentrua urez hornituko dituen depositua erakitzeko lanei baimena emateko ez zen adostasunik izan. EHko zinegotziak ez daude Gazte Zentrua egitearekin ados eta gai honi buruzko eztabaidetan abstenitu egin dira. Ur depositu hau Aguas del Nortek egingo du eta aurrekontua 16 milioitakoa da.

Euskara Festa 2000



Herri bazkarian 300 pertsona inguru bildu ziren.

Apirilaren 13a eta 16a bitartean Urretxu eta Zumarragako hainbat gaztek osatu duten Ttipi-Ttapa elkarteak antolatutako Euskara Festa 2000 jaia ospatu zen. Lau egunetan izan ziren ekintza ezberdinak antolatzeko burututako lan gogoraren ostean balorazioaren ordua heldu da eta antolatzaileak gustura ageri dira herritarren erantzunaz.

Hasiera batean Ttipi-Ttapa elkarte herriko talde ezberdinetan dabilizan lagun gutxi batzuek soilik osatzea erabaki zuten, honela ekintzak erraztasun handiagoz aurrera atera ahal izan eta talde ezberdinen babesa izateko. Helburua ekintza ezberdinetan zein antolaketan ahalik eta euskaldun gehien biltzea zen eta urtean zehar elkarlana bultzatzea. Horretarako antolatu diren ekintzetan izan den partaidetzaz gustura ageri dira.

Jon Arretxe eta Jose Luis Otamendik eskaini zuten hitzaldiak 20 bat lagun bildu zituen eta antolatzaileen esanetan aipagarriena bertara hurbildu zen jendearen partaidetza izan zen. Ostiralean

D.B.H. eta batxilergoko ikasleek bazkaria izan zuten Ederrena pilotalekuan eta 450 ikasle inguru elkartu ziren. Iluntzean Balentiña jatetxean ospatu zen bertso afarian 33 lagun bildu ziren eta bertan bizi izan zen giro alai hainbat orduz luzatu zen trikitixaren soinuaz eta koplak kantatuz.

Larunbatean sagardo dastaketa, babarrun lehiaketa, herri bazkaria eta perkusio emanaldia burutu ziren eta bazkarian 300 lagun bildu izanak argi eta garbi erakusten du jendearen erantzuna. Igandean, bukatzeko, pailazoen bi herriotako haur ugari bildu zuten Zumarragako Euskadi enparantzan.

Antolatzaileen esanetan, ostiral arratsaldeko antzerkia eta larunbat gaueko kontzertua izan ziren espero zen arrakasta izan ez zuten ekintza bakarrak.

Dena den, orokorrean oso gustura ageri dira eta euren asmoa, datorren urtean festa errepikatzeaz gain, hurbildutako jendearen arteko elkarlana urtean zehar bultzatzea da.



Etxean jaten dituzten babarrunak ere bereaiek prestatuak ote dira?

MASTER HEZKOR

Zumarragako elektrogailu erakusketarik handiena!

Prezio eta modeloetan aukera aparta

Urdaneta, 5 ☎ 72 41 31
ZUMARRAGA



Edergintza

Edergintza tratamenduak
Depilazioak
Solarium

Labeaga, 2 URRETXU ☎ 72 25 13

Eskulanetarako eskaiola, pintura edo besterik behar baduzu zatoz hona



Ipeñarrieta, 4 ☎ 943 72 14 20
URRETXU



alejandro albisua

kirol gaiak

Soraluze 6
☎ 72 52 22
ZUMARRAGA



GUREA

Iturgintza



Bainurako altzariak
Gas instalazioak
Berogailuak
Bainuak...

Barrenkale 17- ☎ 72 12 67
20700 URRETXU

Errealeko jokalaria Ikastolan sariak banatzen

Apirilaren 13an Errealeko Mikel Aranburu eta Igor Jauregi jokalaria Urretxu-Zumarraga Ikastolan izan ziren Euskaraz Biziko sariak banatzen, Euskadi Irratian eta Euskaldunon Egunkarian Errealaren jarraipena egiten duen Jon Balenziaga kazetari zumarragarrekin batera. Ikastolako ikasleek hirurei galderak egiteko aukera izan zuten eta galde-erantzun mamitsuak entzuteko aukera izan zen. Txantxa giro alaiaren hiruren lan jardueraz, jokalaria eta kazetariaren arteko harremanez eta Clementeren erretzeko ohituraz hitz egin zuten besteak beste. Erreala eta Athletic-en arteko derbiaren aurreko astea zenez, pronostikoa ere eskatu zitzaizen eta Mikelek 1 eta 0 irabaziko zutela esan zuen eta Igorrek, berriz, 2 eta 0. Gustura hartuko lukete gero Athleticzaleek!

Galde-erantzunekin amaitu ondoren, Mikel, Igor eta Jonek emozioz gainezka zeuden irabazleei sariak banatu zizkieten ikaskideen txalo zaparrada artean. Ikasleek zein gonbidatuek primeran pasa zuten Pagoeta Antzokiko ekitaldian, baina bigarren hauen lana ez zen ekitaldiarekin amaitu. Izan ere, Ikastolako ikasleak atean zain zituzten eta atera bezain pronto ikasle andana gainera joan zitzaizen autografo eske. Pazientzia handiz, haur guztiei autografoak sinatu eta hauek pozez gainezka bidali zituzten etxera.

Behaldekoko zerrendan ageri dira saria jaso zuten gazteak. Zorionak denei eta segi lanean gogor!



Ipuin lehiaketako sarituak

2. maila:

1. saria: "Bizikletaren gurgilak", Pablo Alberdi.
2. saria: "Hamar sagu ausartak", Maialen Igartua.
3. saria: "Betaurreko berriak", Elisabet Unanue.

3. maila:

1. saria: "Argitxo eta zisnea", Jone Inza.
2. saria: "Amona ipuin kontalari", Maialen Torres.
3. saria: "Aita eta Tilili", Edurne Jaka.

4. maila:

1. saria: "Abentura", Koldo Agirre.
2. saria: "Hiru lehoitxoeren abentura", Jone Izagirre.
3. saria: "Lauko hiruzta", Idoia Ugarteburu.

5. maila:

1. saria: "Reziklatus suziria", Nerea Arranz.
2. saria: "Lainoetako larrosa", Amaia Arrospide.
3. saria: "Panpin bizidunak", Igone Azurmendi.

6. maila:

1. saria: "Kukurrukurik egiten ez zekien oilarra", I. Beitia.
2. saria: "Zeruko eskaileren bila", Lidia Irizar.
3. saria: "Orri baten istorioa", Xabier Segurola.

D.B.H. 1. maila:

1. saria: "Bi eulien buruhaustea", Eneko Aiastui.
2. saria: "Etxe misterioa", Jon Ander Aranburu.
3. saria: "Asier eta dragoia", Joanes Jaka.

D.B.H. 2. maila:

1. saria: "Bihurrikeriak", Iñaki Berriotxo.
2. saria: "Bananito, Kanariaseko platanoa", Amaia Pérez.
3. saria: "Ametsa egi bihurturik", Lorea Expósito.

Bertso lehiaketa:

D.B.H. (1. zikloa):

1. saria: Alain Beltza.
2. saria: Miren Arbonies.
3. saria: Garazi Etxezarreta.

Lizeokoak:

1. saria: Uxue Fernández.

Marrazki lehiaketa:

1. maila:
1. saria: Antziñe Aranburu.
2. saria: Teresa Izagirre.
3. saria: Maddi Mantxola.

Merkataritza Euskalduntzeko Plana

Ederrena taberna

Aurreko alean aipatu bezala, hurrengo asteetan Merkataritza Euskalduntzeko Planean sartu diren erakunde berrien berri emango dizuegu. Lau dira erakunde hauek: Aldapa taberna, Polikiroldegiko taberna, Ederrena taberna eta Balentiña jatetxe eta sagardotegia. Euskalduntzerako orduan tabernek suposatzen duten berrikuntza, hauetan komunikazio gehiena ahoz egiten dela da, hau da, dokumentu gutxiago erabiltzen dituzte (karta, menua, komandarik... ez dago). Oraingo honetan tabernetako bat aurkeztu nahi dizuegu: Ederrena hain zuzen ere. 1998ko azarotik Joseba Salaberria da bertako arduraduna eta berarekin solasean frontoiko tabernaren berri izan dugu.

Zer ardura duzu zuk?


Tabernako arduraz gain, frontoikoa ere badut. Hau da, instalakuntza guztiak erabiltzeko prest eta txukun mantendu behar ditut, frontoia ireki eta itxi, pelotariei orduak eman... Pilotalekua urteko 365 egunetan zabalik izaten da.

Zeintzuk erabiltzen dute gehienbat frontoia?

Astelehenetik ostiralera, arratsaldeetan, pilota eskolakoek erabiltzen dute. Hauek eskuz jokatzen dute. Gero, zortzietatik aurrera, herriko jendea etortzen da palan jokatzen. Goizetan ere libre egoten da kantxa nahi duenak jokatzen. Asteburuetan frontoia beste funtzio batzuk ere betetzen ditu. Batez ere negu partean larunbata eta igande arratsaldeetan haurrena izaten da frontoia, gurasoak tabernan tertulian gelditzen diren bitartean. Horrez gain, beste kultur ekipamendurik ez dagoen bitartean, beste ekintza batzuetarako ere erabiltzen da. Horrek esan nahi du kantxak garbiketa eta zainketa ona behar duela jaialdi baten ondoren pilotan jokatzen prest egon dadin. Urtean lehenengo mailako partidu bakarra jokatzen den arren, maila txikiagoko txapelketak ere jokatzen dira.

Frontoiari buruzko proiektu eta proposamenak badaude. Zuk zer behar ikusten dituzu?

Dudarik gabe, berogailua. Edozein partidu edo ikuskizun ikusteko tenperatura egokirik ez da egoten eta horrek jendea etortzeko orduan desanimatu dezake.

**Ordutegia:**

- Astelehenetik ostiralera: 10-14:30 / 17:00-22:00.
- Larunbatetan: 9:00-22:00.
- Ilgandetan: 9:00-14:00 / 17:00-22:00
- Atsedena: Astelehen goizean.

Alokairua:

- Arratsaldeko 6ak arte: 650 pta. orduko.
- 6etatik aurrera: 865 pta. orduko.
- Argia: 515 pta.

**RENEDO argazkiak**

Jaunartzeak • Bataioak • Ezkontzak

Labeaga 52-54 F URRETXU

☎ 725682

☎ 722292

**MAPFRE****Aseguru etxea**

S.Esnaola, 6 ZUMARRAGA

☎ 72 20 00 faxa: 72 24 00

**PLAZAOLA
ITURGINTZA**

Bide-Zar 5 ZUMARRAGA
943 72 13 70

**ARKUPE
TABERNA****ALTZARIAK****MERKA-UROLA**

Mugitegi, 17 Tel. eta faxa 943 72 58 28

URRETXU



J. M. Bereziartua, kazetari afizionatua

Kazetari gizajoa!

Kaixo, irakurle gogotsu hori;

Honelako zutabeetan, norma-lean egiten dena da egileari bururazten zaion xeblekeriaren bat idatzi. Txakur kakak, tabernari batzuen purrustadak edo telebistako iragarki sasierotikoren bat izan ohi da halako artikulotxoan mamia. Zutabegile (ez dakit oso izen egokia den) batzuek beharbada ez dute uste euren jakinduria alferrik galtzeko gauza denik, eta F.M.I.aren azken erabakiak edo giza genomaren gora beherak astintzen dituzte. Besteoi tonto esateko modu elegantea, alafede!

Niri ere halako zutabetxo bat eskatu/eskaini didate (zer egingo zaio, irakurle, bitzita honetan sufritzen jakin beharra dago) eta ene (eta nire lankideen) probetxurako erabiltzea pentsatu dut. Sasikazetariok aintzakotzat hartzen ez gaituzten piztiak gara, eta honek erremedioa behar du, kantak dioen bezala, gu ere zerbait bagara eta. Hau bezalako aldizkaritxo apalak egiten ditugunoz ari naiz. Badirudi honelako argitalpenak txapelaren buztanarekin egin daitezkeela. Oso erratua zaude horretan, irakurle. Alkateak Irimo eta Belokiren arteko teleferikoa inauguratu duela edo kultura zinegotziak saltsako ikastaroak emango dituela jakin dezazuten lan asko egin beharra dago, albiste mozolo eta garrantzi gabekoak ematen duten arren. Eta zuk horren arin irakurtzen duzun agenda horrek biltze lan izugarria dauka atzetik. Eta gainera esker

txarreko lana askotan.

Agendarekin ari naizela, adibide bat; aurreko "AISIALDIRAKO GIDAN", Takolo Pirritx eta Porrotx pailazoen emanaldia arratsaldeko 15:30etan jarri nuen, behar baino 2 ordu lehenago, benetako ordua arratsaldeko 17:30ak baitzen. Zuk uste duzu jendeak eskertu didala seme-alabekin bi ordu gehiago egoteko aukera hori? Gaur egun hainbeste aipatzen denez guraso - semeen arteko komunikazio falta, aukera polita izan zitekeen hasieran zain egondako "tartetxo hori". Zer dira ba bitzita honetan bi ordu?. Ba ez, denak hase-rre; "hi, Bere, siesta hondatu diak hanka sartze horrekin, joder!!". Esandakoa, esker txarreko lana.

"Sasikazetariok aintzakotzat hartzen ez gaituzten piztiak gara, eta honek erremedioa behar du"

Baina lan honen gordintasuna kale inkestak egiterakoan dator. Denek nahi dute jakin besteek zer pentsatzen duten, baina norberarena esan gabe. "Ni ez atera. Hau, hau atera!" Eta "Hau" k gauza bera esaten du. Azkenean ez bata eta ez bestea. Gero, erantzunak bideratzea izaten


da kontua. Demagun elkarrizketatua jarioduna dela, etorri handikoa, bertsolari batzuk bezalakoa: Galdera inauteriei buruzkoa izan daiteke, eta hara erantzuna: "...zeren ni jaiotzez gailegoa naiz, Ourensekoa, han bai odolki onak. Gurean esaterako, bi txerri hiltzen ditugu, eta...". Beharbada oso interesgarria izan daiteke honelako oratoria daukan elementoa, baina kale gorrian bi ordu daramatanarentzat gehitxo aukeran, eta nork itzuliara zi inauteriaren arrastora? Goazen giza espeziearen beste puntara: ixilak. Galdera: "Zer iruditzen zaizu, Udalak A15 ingurunea lur zoru industrialala kontsideratzeko hartu duen erabakia, uste duzu gure herriko etorkizun ekonomikoa baldintzatu dezakela kontuan harturik lur zoru industrialaren eskasia gure ingurunean?". Erantzuna: "Beno". Hemendik ere, zerbait atera behar!

Okerrena, ordea, etortzeko dago. Demagun jenero batekoa nahiz bestekoa engainatu duzula eta fulamentuzko erantzun pare bat atera diozula. "Oso ondo, eskerrik asko, orain argazki bat egingo dizut" esaten diezu, arnasa sakon hartu ondoren eta ilusioz beterik, eta hara non ikusten duzun elkarrizketatua ihesi doala, "hori ez, ezta pentsatu ere!" oihukatuz. Zure inkesta, kakapilara!

Beraz irakurle, errukia izan ezazu eta hartu gure lana behar duen kontsiderazioan. Beno, hau ez hainbeste.

INDUSTRIARAKO OSAGARRIAK - ELEKTRAGAIK - BURNIZKO TRESNERIA
 Legazpi, 4 etxeazpia eskuina ☎ 943 72 40 12 Faxa: 943 72 54 31 ZUMARRAGA

Antzerki Astera joateko ohiturarik ba al duzu?




Juan Manuel Begiristain

Ez naiz behin ere joan, baina primeran iruditzen zait Antzerki Astea antolaztea. Noizbait joan nahiko nuke eta ea horretarako asti pixka bat hartzen dudan.




Lauri Rivas

Antzerkia atsegin dudan arren eta gustura joango nintzatekeen arren, haur txikiak ditut eta ez dut astean zehar antzerkira joaterik.



Amaia Lizarraga

Ez nekien herrian Antzerki Astea antolatzen zenik. Niri antzerkia asko gustatzen zait eta Gainzurin antzezlanen batetan parte hartu dut. Aurten denbora badut lagunekin Antzerki Astera joaten saiatuko naiz.




Gotzon Anduaga


Antzerkira joateko ohiturarik ez dudan arren, behin lagun batek lan egiten zuen antzezlan bat ikustera joan nintzen. Dena den, laguna ikusteagatik soilik joan nintzen eta ordutik ez naiz gehiagotan joan.

BIONA
AROSZTEGIA
 Altzariak neurrira
 ☎ eta faxa: 72 02 55
 Erratzu, z/g URRETXU

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:
 En la edición de esta publicación colabora:
✚ kutxa
fundazioa
fundación

EDURNE
JANTZIDENDA
 Piedad, 18 ☎ 943 721417 ZUMARRAGA


 - Dietetika
 - Estetika
 Bidezar, 7 ☎ 72 36 52



BILINTX
LIBURUDENDA
EUSKAL KULTURGINTZA, S.A.
 -Fermín Calbetón, 21 Telf. 420080-420224
 Fax: 422363 20003 DONOSTIA
 -Fermín Calbetón, 30
 Telf. 422696 20003 DONOSTIA
 -República Argentina, 4 Telf. 626817
 Fax: 626817 20300 IRUN
 -Arostegieta, z/g. Telf. 673533
 Fax: 673500 20400 TOLOSA
 -Ibargarai, 12 Telf. 764050
 Fax: 764050 20570 BERGARA


Keros
 Enmarkatzeak
 Arte ederrak
 Dekorazioa
 Opariak
 Labeaga, 35 Urretxu ☎ 72 41 61

XIV. Antzerki Astea

Aurreko urteetan baino zertxobait beranduago bada ere, azkenean heldu da Urretxu eta Zumarragako antzerkizaleen urteroko zita. Maiatzaren 15etik 21era izango den aurtengo Antzerki Asteako ere bi Udaletako Kultura Batzordeek egitarau bikaina prestatu dute. Besteak beste euskal antzerkigintzako talde garrantzitsuenetakoa den Tanttaka, aski ezaguna den Juan Tamariz eta iaz arrakasta itzela izan zuen Albena taldea izango ditugu gure artean.

Aurten aldaketa nagusiak bi dira: alde batetik, kale antzerkia berreskuratu da eta Inkieta eta Deabru Beltza taldeek Gernikako Arbola enparantzan Ibiltariak lana antzeztuko dute. Bestetik, ez dira bonoak salgai jarriko. Hori bai, Urretxuko Kultur Etxera edo Zumarragako Udaletxeko Kultura Sailera joanez gero aste osorako sarrerak eros daitezke. Juan Tamarizen antzezlenerako sarrerek 1.000 pezeta balio dute eta gainontzekoek 700.

EGUNA/ORDUA/LEKUA	TALDEA	ANTZEZLANA	HIZKUNTZA
MAIATZAK 15 20:30etan PAGOETAN	TANTTAKA	NOVECENTO OZEANOKO PIANISTA	EUSKARAZ
MAIATZAK 16 11:00 eta 15:00etan LA SALLEN	TAUN-TAUN	TXIO-TXIOKA (HAURRENTZAT)	EUSKARAZ
MAIATZAK 16 20:30etan PAGOETAN	TXALO	LOS EMIGRADOS	GAZTELERAZ
MAIATZAK 17 20:30etan PAGOETAN	ALBENA	BESOS	GAZTELERAZ
MAIATZAK 18 22:30etan TOM CATEN	LEGALEON	COMEME EL PUNTO	GAZTELERAZ
MAIATZAK 19 22:30etan PAGOETAN	TENTAZIOA	EZ DA HAIN ERRAZA	EUSKARAZ
MAIATZAK 20 22:30etan GERNIKAKO ARBOLAN	INKIETO + DEABRU BELTZA	IBILTARIAK	TESTU GABEA
MAIATZAK 21 20:30etan BELOKI PILOTALEKUAN	JUAN TAMARIZ	MAGIA POTAGIA	GAZTELERAZ



Goi-mailako Lanbide Heziketako B. Institutua
Miguel ALTUNA

2000/2001 ikasturterako HEZKUNTZA-ESKAINNTZA

GOI MAILAKO PRESTAKUNTZA ZIKLOAK

- Administrazio eta finantzak
- Erregulazio eta kontrol sistema automatikoak
- Mekanizazio bidezko produkzioa
- Proiektu mekanikoen garapena
- Plastiko eta kautxogintza

ERDI MAILAKO PRESTAKUNTZA ZIKLOAK

- Mekanizazioa
- Ekipo eta instalazio elektroteknikoak
- Administrarritza kudeaketa

Aurrematrikula epea zabalik: ekainaren 1etik 12ra
Ohiko matrikula epea: uztailaren 3tik 7ra



Norberaren gaitasun eta nahien arabera egokitutako ibilbideak
Behar diren baliabideekin
Bide eta ate guztiak zabaltzen dituen ikasketak
Eskola publikoa: integratzailea eta anitza

Helbidea: Ibargarai 1 (Frontoi parean). ☎ 943 76 24 91 / 943 76 38 40

Bulego orduak: 9etatik 13etara

Berri gehiago nahi baduzu deitu gure telefonoetara eta gure eskaintzari buruzko azalpenak emango dizkizugu

Nondik datorkizu margogintza zaletasuna?

Nondik ez dakit, baina txikitatik hasi nintzen jada margotzen ikasten Félix Vaquerizaren estudioan eta handik hona beti egin dut margolaritzarekin erlazionaturiko zer edo zer: koadroak, kartelak... Vaquerizarekin 4 urte inguru eman nituen ikasten, baina nire ustez marrazten ikasten ez da sekula bukatzen. Orduetik hona oleoan margotu izan dut batez ere eta denetarik egin dudan arren gehienbat paisaiak atsegin ditut.

Nolatan pasa zinen ordenagailuarekin lan egitera?

Diseinu grafikoa betidanik atsegin izan dut eta Photoshop eta Freehand ikastaro bana egin ondoren, ordenagailu bat eskuratzeko aukera izan nuen. Orduetik hona kartelak prestatzeari ekin diot, baina ezagunen batek eskatzen didanean koadroren bat ere margotzen dut. Argazkilaritza ikastaro bat ere egin nuen arren, ez dut oso serio hartu, nahiz eta kartelgintzarako oso garrantzitsua den.

Noiz hasi zinen kartelak lehiaketara aurkezten?


Denbora gutxi dudan arren, artezaletasuna ez uztearren lehiaketak zeudenean kartelak aurkezten hasi nintzen. Gazteago nintzela Urretxuko festetako kartel lehiaketa irabazi nuen eta duela urte gutxi Azpeitiko Antzerki Topaketetako kartel lehiaketa ere bai. Bestalde, Bakioko Euskera Batzordeko logotipoa ere nik eginga da.

Zure kartelek berezko estiloa dutela esango al zenuke?

Ez nuke estilo propioa dudanik esango, horretarako lan asko egin behar baitira eta ondoren bilakaera ikusi. Hori bai, nik konposaketa sendokoak atsegin ditut.

Nola prestatu duzu Antzerki Asterako kartela?

Idea batetik ahal dudana ateratzen saiatzen naiz eta aurtengo kartel irabazlea, adibidez, lortu nahi nuenetik nahiko gertu dago. Iaz beste kartel bat aurkeztu nuen eta hartan ere Juanlu Escudero izan zen karteletako motiboa. Izan



Mikel Arranz, kartelaren egilea

Buhame tabernan azken bi urteotan antolatu den erakusketan ikusi daitekeen moduan, Urretxu eta Zumarragako Antzerki Asteak urteen poderioz hobera egin duen moduan, kartel iragarleek ere hobekuntza nabaria izan dute. Aspaldiko urteotan kartela aukeratzeko lehiaketa antolatu dute bi udal-tako Kultura Batzordeek eta urtetik urtera zailagoa zaio epaimahaiari kartel irabazlea aukeratzeko, kartelen maila dela eta.

Aurtengo Antzerki Astea iragarriko duen kartelaren egilea Mikel Arranz urretxuarra da, herriko kultur gunetan ez ezik, kirol arloan ere aski ezaguna, Urretxuko Kiroldegian lan egiten baitu. Mikelek margogintza oso txikitatik gustuko izan du, baina azken urteotan ordenagailuarekin trebatu eta argazki eta marrazkiak moldatzeari ere gogor ekin dio. Kartel irabazlea prestatzeko Juanlu Escudero aktore zumarragarra mozarrotu, argazkia atera eta ordenagailu bidez txukundu zuen. Emaiza antzerkiaren magia islatzen duen kartel adierazkorra da.

Aurtengo kartel irabazleaz eta bere lanaz hitz egiteko asmoz berarekin izan ginean, ale honetako azala prestatzea eskatu genion eta oso gustura egin du.

ere, Juanlurekin lan egitea oso erraza da, erregistro espresibo zabala baitu. Argazkiak atera ondoren bat aukeratu nuen eta moldatzeari ekin nion: formatura moldatu, txukundu... Fondo txuri bat jarri genuen arren ordenagailuan gehiago txuritu beharra dago. Bestalde, makilaia ez zen oso txukuna izan eta ordenagailuan konpondu behar izan nuen.

Lehiaketara Juanluri ateratako beste argazki batez prestatutako kartela ere aurkeztu zenuen...

Beste kartel hau konplexuagoa izan zen atrezzo dela eta. Fondo iluna du eta Juanlu Hamletez jantzia dago eskuartearen duen kaskezurrari koska egiten diola, umore kutsu bat emanez. Kartel bezala, aukeratu dutena hobe dela uste dut, ideia argiago azaltzen baitu: kartel alai, garbia... da eta antzerkiaren magia eta harridura sortzeko ahalmena ondo islatzen du.

Inspirazio iturririk ba al duzu?

Egia esan, ni inspirazioaz ez naiz gehiegi fido. Beti datorkigu bat-bateko ideien bat edo beste, baina azken emaitza lanaren ondorioa da. Ideia bat dudanean ordenagailuan bertan bozetoak egiten ditut eta neurri batean, argazki mordoxka bat ateratzea ere bozetoak egitea da, nahiz eta eskuz eginak ez izan.

Herrian kartelgintzan maila ona dagoela uste al duzu?

Nik uste hobetu daitekeela, baina honek bi alde ditu: sari hobeak jarriko balira kanpoko askoz ere jende gehiago aukeratzeko litzateke eta kartel irabazlea hobe izango litzateke. Baina, herriko jendeak ilusioaz jarrai dezan, beharbada, komenigarriagoa da sari txikiagoak jarri eta bertakoek irabazteko aukera izatea.

Kartelgile edo estiloren bat bereziki atsegin al duzu?

Nire afizio hau dela eta, karteletan, iragarkietan... gero eta arreta handiagoa jartzen diet. Gorka Garmendiaren lan asko ikusi ez ditudan arren, ikusi ditudan asko gustatu zaizkit. Ttipi-Ttarentzat egin duen kartela, esaterako, sinplea dirudien arren oso indartsua eta adierazkorra da.

ASTE SANTUKO OPORRAK AMAITU DIRA ETA IKASTURTEA ERE AMAITZEAR DUZUE JADA.

HORI DELA ETA, TXAPELKETAK AZKEN TXANPAN AURKITZEN DIRA ETA HILABETE HONETAN FUTBOL TXAPELKETETAKO SAILKAPENAK BILDU DITUGU. HORRETAZ GAIN, IPARRAGIRRE INSTITUTUKO NESKA BATZUEKIN HITZ EGIN DUGU ESKOLA KIROLARI BURUZ.

BENJAMIN-3. MAILA

TALDEA	J.	I.	B.	G.	AL.	AU.	PT.
GAINZURI A	5	4	1	0	25	12	13
IKASTOLA A	5	3	2	0	17	11	11
HAZTEGI A	5	3	0	2	19	24	9
D. AGIRRE	5	2	1	2	23	15	7
LA SALLE A	5	2	0	3	11	20	6
IKASTOLA B	5	1	2	2	17	24	5
HAZTEGI B	5	0	1	4	11	20	1

BENJAMIN-4. MAILA

TALDEA	J.	I.	B.	G.	AL.	AU.	PT.
IKASTOLA C	6	5	0	1	44	20	15
GAINZURI B	6	4	1	1	53	28	13
HAZTEGI D	6	4	0	2	39	21	12
LA SALLE B	6	3	1	2	22	16	10
IKASTOLA D	6	1	3	2	28	31	6
HAZTEGI C	6	1	1	4	23	30	4
GAINZURI D	6	1	1	4	14	32	4
D. AGIRRE B	6	1	1	4	11	56	4

ALEBIN NESKAK-5. ETA 6. MAILAK

TALDEA	J.	I.	B.	G.	AL.	AU.	PT.
IKASTOLA B	5	5	0	0	45	4	15
LA SALLE B	5	4	0	1	30	7	12
HAZTEGI B	5	4	0	1	33	12	12
GAINZURI	5	3	0	2	11	10	9
D. AGIRRE	5	1	0	4	11	20	3
IKASTOLA A	5	1	0	4	10	35	3
HAZTEGI A	5	1	0	4	3	25	3
LA SALLE A	5	1	0	4	5	35	3

ALEBIN MUTILAK-5. MAILA

TALDEA	J.	I.	B.	G.	AL.	AU.	PT.
IKASTOLA B	4	3	0	1	20	10	9
GAINZURI B	4	3	0	1	34	17	9
D. AGIRRE A	5	3	0	2	28	30	9
HAZTEGI A	4	2	1	1	22	13	7
LA SALLE	4	1	1	2	21	25	4
IKASTOLA A	5	1	0	4	31	42	3
GAINZURI A	4	1	0	3	16	35	3

ALEBIN MUTILAK-6. MAILA

TALDEA	J.	I.	B.	G.	AL.	AU.	PT.
D. AGIRRE B	5	3	1	1	36	17	10
IKASTOLA C	5	3	0	2	24	24	9
IKASTOLA D	5	2	3	0	23	15	9
HAZTEGI C	5	2	1	2	14	16	7
LA SALLE B	5	1	2	2	17	22	5
HAZTEGI B	5	0	1	4	16	37	1

INFANTIL NESKAK

TALDEA	J.	I.	B.	G.	AL.	AU.	PT.
HAZTEGI C	8	8	0	0	35	7	24
IKASTOLA	8	7	0	1	45	16	21
HAZTEGI B	8	4	2	2	21	14	14
LA SALLE A	8	4	1	3	31	12	13
IPARRAGIRRE A	8	4	0	4	27	27	12
HAZTEGI A	8	2	1	5	9	29	5
IPARRAGIRRE	8	1	2	5	9	29	5
OLAZABAL	8	1	1	6	11	21	4
LA SALLE B	8	0	1	7	3	45	1

INFANTIL MUTILAK

TALDEA	J.	I.	B.	G.	AL.	AU.	PT.
HAZTEGI B	7	6	0	1	32	16	18
IPARRAGIRRE	7	5	0	2	36	17	15
IKASTOLA	7	4	2	1	31	26	14
LA SALLE	7	4	1	2	34	27	13
HAZTEGI A	6	1	1	4	24	34	4
OLAZABAL	7	1	0	6	14	21	3
HAZTEGI C	7	0	0	7	19	45	0

“Softballa beisbolaren antzekoa da,
baina pilotak makina batek botatzen ditu”



Hilabete honetan Joxe Mari Iparragirre institutuan D.B.H.ko lehen eta bigarren mailan ikasten ari diren neska talde batekin hitz egin dugu. Beraiek Agurtzane Balerdi, Maialen Mediavilla, Leire Hernández, Jone Gil, Nerea Ormazabal, Eva Holgado, Izaro Lasa, Miren Retegi, Edurne Aierbe eta Edurne Fernández dira.

Beraiekin egon ginen egunean softballean jokatzeko ari ziren. Softballa beisbolaren oso antzekoa da, baina makilaz jo beharreko pilotak makina batek botatzen ditu. Eskolan euskarri baten gainean dagoela jo behar diote pilotari eta beraiekin egon ginenean lehenengoz ari zirenez pilotak botatzen dituen makinarekin, ez zebiltzan oso trebe. Hala

ere, umorez hartu zuten eta parre egiteko aukera izan zuten irakaslearen xelebrekeriak zirela eta.

Esan digutenez, urte dexente daramatzate jada eskola kirolean eta saskibaloian, atletismoan eta beste hainbat kirolean ere aritu diren arren, futbola dute gustukoaren (Honetan neska-mutil guztiak ados daude nonbait). Futbolearen jokatzeko gustuko izateaz gain, telebistan ikustea ere atsegin dute, batez ere Errealak jokatzeko badu (zeresanik ez Sa Pintok edo Idiakezek golen bat sartzen badute).

Azken urteotan neskek gero eta kirol gehiago egiten dutela uste dute eta beraiek ere kirolean jo eta ke jarraitzeko asmoa dute.

CHIARA

**Etxerako lentzeria
Oparitarako gaiak**

Labeaga, 33-C behea ☎ 72 51 18

Madaia plazoletan
20700 URRETXU

TABERNA



JATETXEA

Piedad kalea, 14 ☎ 943 72 08 19
ZUMARRAGA



Belardenda, dieta eta errejimen
elikadura

Labeaga 31 ☎ 943722780
URRETXU

foto luz
Argazkilaria

Legazpi, 5
☎ 72 11 55
Zumarraga

Labeaga, 43
☎ 72 16 81
Urretxu

Kale nagusia, 5
☎ 73 04 19
Legazpi

*** ZURE ESTUDIOA ***

GOSARIETAN BEREZITASUNA
GOIZEKO 6etan ZABALTZEN DUGU



OSINALDE
KRUASANDEGIA
TABERNA

S. Esnaola, 26 ☎ 943720306
ZUMARRAGA



URRETXU
OPTIKA-GABINETE AUDIOPROTESIKOA

Graduazioa-Audiometriak-Audiofonoen moldaketa-Begiko tentsioaren hartzea

Ipeñarrieta, 4 ☎ 943 72 09 07 Iparragirre, 1 ☎ eta faxa 943 72 59 68

Eitzako jaiak

Uda hurbiltzen doan neurrian, Euskal Herriko herri eta auzo ezberdinetako jaiak hasten dira eta gure bi herriotan honen adierazle Eitzako jaiak dira. Lehenengoak izaki, jendeak oso gustura hartzen ditu eta herritar ugari igotzen da Eitza auzora bertako jaiez gozatu eta San Isidroren aitziakiaz parrandaren bat egitera.

Garai batean Bordatxo tabernaren ondoan zegoen Pinupe elkarteko lagunak arduratzen ziren auzoko festak antolatzeaz, baina duela hiru hamarkada inguru elkarte hau desagertu egin zen eta jaioberriak ziren Irrika, Izazpi eta San Gregorio elkarteek hartu zuten jaiak antolatzearen ardura. Garai hartan oso jende gazte osaturik zeuden elkarte hauek eta bakoitzak ekintza zehatz batzuk antola-

tzen zituen.

Dena den, duela 10 urte inguru festen antolaketan auzoaren partaidetza jaitsi egin zen eta tabernariak hartu zuten lanaren ardura. Orain, berriro ere auzoaren partaidetza bultzatu nahi da. Hori dela eta, aurtengo jaietan auzoko zenbait gazte ere antolaketa lanetan murgildu dira. Aurtengo egitarauak dakarren berrikuntza nagusia kaldere-taren lekua herri afariak hartuko duela da. Bestalde, azkeneko urteetan ez bezala, herriko gazteek txosna jarriko dute Txomin taberna zegoen lekuan. Eitzako jaietako antola-tzaileek aurtengo San Isidroak arrakastatsuak izatea espero dute, aspaldiko partez ez baitira Beasaingo jaiekin batera ospatzen.

San Isidro jaietako egitaraua

MAIATZAK 6, LARUNBATA

Arratsaldeko 4etan: XXII. Mus Relampago Txapelketa.

MAIATZAK 12, OSTIRALA

Arratsaldeko 6:30etan: Eitzako aisialdi taldeak antolaturiko buruhandi eta umejolasak. Ondoren haurrentzako txokolatada.

Arratsaldeko 7:30etan: Poteoa Elortza anaiak soinu jotzen direla.

Gaueko 9:30etan: Afari herrikoia trikitilari eta bertso-lariekin.

Gaueko 11etan: Kiñu taldeak eskainitako dantzaldia.

MAIATZAK 13, LARUNBATA

Eguerdiko 12etan: XX. toka txapelketa.

Eguerdiko 1etan: Zaldua anaiak soinu jotzen kalejiran.

Arratsaldeko 4:30etan: XVII. Kross Herrikoia.

Arratsaldeko 6:30etan: Pilota Txapelketako finalak.

Arratsaldeko 7:30etan: Zaldua anaiak soinu jotzen kalejiran.

Gaueko 11:00etan: Dantzaldia Jator taldearen eskutik.

Gauerditik aurrera Aldapa txarangak auzoko kaleak alaituko ditu.

MAIATZAK 14, IGANDEA

Egun guztian: Josu Jaso, Xanti Ormaetxea, Manolo Salgado eta Eugenio Lazkanoren eskutik artisautza eta sendabelarren erakusketa.

Goizeko 10etan: Antziñako Ama txistulari taldeak eskainitako goiz eresia.

Ordu berean: Zuhaitzaren Soinu txalapartaren ttakun-ttakun gozoak entzungo dira.

Goizeko 11etan: San Gregorioko elizan Meza Nagusia.

Eguerdiko 12:30etan: Zumarragako Musika Bandaren kalejira.

Eguerdiko 1etan: Irrintzi Dantza Taldearen emanaldia.

Eguerdiko 1etan: Zaldua Anaiak soinu jotzen kalejiran.

Arratsaldeko 5etan: Haurrentzako antzerkia.

Arratsaldeko 5:30etan: Grupo Rociero Alberoren emanaldia.

Arratsaldeko 6:30etan: Herri kirolen erakusketa. Goenatxo eta bi aizkolari izango dira.

Arratsaldeko 7:30etan: Zaldua Anaiak soinu jotzen kalejiran.

Gaueko 10etan: Jaialdi mariatxia Txapala taldearen eskutik.

MAIATZAK 15, ASTELEHENA (SAN ISIDRO EGUNA)

Goizeko 11etan: San Gregorioko elizan Meza Nagusia San Isidroren omenean.

Ondoren: Hamaietako auzoko jubilatuentzat.

Arratsaldeko 6:30etan: Gorriti eta bere abereak.

Arratsaldeko 7:30etan: Poteoa Zumarragako Trikitixa soinu jotzen dela eta Eitzako aurtengo jaiei bukaera ematea.

Eitzako dendari eta tabernariok San Isidro jai zorientsuak opa dizkizuegu



**BORDATXO
TABERNA**

A M A I E R

**LENTZERIA
OSAGARRIAK**

Mendizabal
harategia

☎ 943 72 55 75

Eitza
kafetegia

Txibiarroetan
espezialitatea

☎943 72 35 57



GALVEZ

Janaridenda
Garraioak

☎ 943 72 12 22

Korta

taberna

Julene

janaridenda

San Gregorio, 25
EITZA

Itxura

**ILEAPAINDEGIA
APAINDEGIA**

Busca Sagastizabal, 1 behe
☎ 943 72 58 19
ZUMARRAGA

Izazpi-Samiño-Oleta mendilerroa, zentral eoliko berri baten kokalekua?

Aurreko asteotan, bai prentsa idatzian, baita irratian zein Euskal Herriko telebista kateetan ere Aizkorri ondoko Elgea Mendiko Zentral Eolikoaren berri izan dugu... aldeko eta kontrako iritziak jaso izan dira halako industri instalazioaren gainean. Batzuek argi-ingar energia garbia dela diote... ekoizpenean inolako errekaririk (zentral termiko edo nuklearren kasuan) edo eta bailarak ito egiten dituzten —ikus Itoitz, Riaño... kasuak— urtegi erraldoirik erabiltzen ez delako. Beste batzuek, Gipuzkoako zein Bizkaiko Mendi Federakundearen kasuan, honelako kontuak hain garbiak eta gardenak ez direla azpimarratu nahi dugu. Hau da, zentral (eta ez “parke” eufemismoa erabiliz) eolikoek kontrako eragin handia dute eraikitzen diren gunetan.



Erreniegako (El Perdón) zentral eolicoa.

Hala ere Urretxu-Zumarragan, jende oso gutxi dakiena halako berria da: Eusko Jaurilaritza Industri Sailak prestatzen ari den “Energia Eolikoaren Lurralde Plan Sektoriala”-k (EELPS) Zumarragako mendietan izango duen eragina, hots, Izazpi-Samiño-Oleta kordalaren inguruan, herritik hurbil, eraiki nahi den Zentral Eolicoa. Energia Eolikoaren Lurralde Plan Sektoriala, egun prestatzen ari den proiektu erraldoia da eta lehendabiziko faseetan Euskal Autonomi Elkarte (EAE) 19 zentral eoliko aurrikusirik ditu bere baitan. Besteak beste Oiz, Irukerutzeta, Ernio ondoko Gazume, Adarra ondoko Mandoegi, Elgea, Salbada... mendiak, eta baita Izazpi-Samiño-Oleta mendilerroa lehendabiziko fase batean. Azken fase batean, beste 29 zentralen kokalekuak aztertu izan dira.

zabalera dutenak, trailerrek erabiltzeko adinakoak), lur-azpiko elektra-hariteriaren kanalizazioak... elektra-dorreen eraikuntzak, gunetako hidrologian (iturriak, lur-azpiko ubide naturalak) zein lur gaineko landaretzan kontrako eragin handia dute. Zentralen eraikuntzek ere etorkizunean egin lekizkiekeen azterketa arkeologiko berriak galarazten dituzte.

Izazpi-Samiño-Oletako dorreek (40 bat guztira) 60 metroko garaiera izango eta 5 kilometrotan zehar banatuko lirarteke

2.- Hegaztiak. Urte oro, 250 Km/orduko mugitzen diren palek hegazti mordoak hiltzen dute. Europako arauen (79/409/CEE Azterarauaren) arabera babestutako sai arrek (Gurelur-ek salaturik Nafarroan gertatu den bezala), arranoek, sai zuriek, Gipuzkoan pixkanaka sartzen ari diren ugatzek eta bestelako hegaztiak ez dituzte aerosorgailuak ikusten lainoa egiten duen egunetan. Emaiza, zentral eolikoak hegaztien txikizioa sortu dezaketen instalakuntzak dira. Halako argudioa

erabili dute Salamancako Quilamas Mendian eta Eskoziako Islay islan. Quilamas-eko proiektua bertan behera utzi zuten hegaztien babesela zela eta.

3.- Paisaia. Zentralek paisaia apurtzen duten instalakuntzak dira. Mendiaren lerroa apurtzen dute eta aspalidanik kultu gunek izan diren mendi lerroak (gune arkeologikoak, Izazpi-Samiño-Oletaren kasuan) aldatu eta itsutzen dituzte. Ez al dute leku emblematico hauek errespeturik merezi? 4000 urtez gizakiaren errespetua izan badute, ez al dute horrela jarraitzeko eskubiderik?

4.- Mendizaleon aisia. Nork ez du mendia inoiz aisialdi gisa erabili? Edozein instalakuntza industrial dagoen tokian arriskua egon daitekeela gauza ezaguna da. Zertarako ba erabiltzen da kaskoa? Iruña ondoko Erreniega (El Perdón) Mendiko zentral eolikoaren atarian indikadore batek ohartarazten duen bezala, aerosorgailuen azpian ibiltzea ekintza arriskutsua da. Mendiak inbadituz gain bereganatu egin dituzte. Zein mendi utziko digute libre aisialdi moduan? Gizakiontzako arriskutsua bada, nola izango da bertatik ibiltzen eta bertan bizi diren hegaztientzat?

Eta zu zeu irakurle, zein den zentral eolikoek Naturarengan izan dezaketen kontrako eragina galdetzen arituko zara zeure buruari. Zentralok 10 eta 200 aerosorgailuz osaturiko lerroak dira. Aerosorgailu dorre bakoitzak 40 m-ko garaiera du eta gainean dituen 3 palek 20 m-ko luzera dute. Pala bakoitza puntan 250 Km/h abiadura mugitu daiteke.

1.- Zentralak eraikitzekeo lur mugimendu erraldoiak egin behar dira eraikitzen diren gunetan: pistak (4 m-ko

Elgea Mendiaren kasuan, egun Gipuzkoan dugun zentral eoliko bakarrean, goian aipaturiko arrazoi guztiak ez dira aintzakotzat hartuak izan; eta are okerrago,

proiektua Madrilgo epaitegian inpugnatuta izanik zentrala eraiki dute. Zer gertatuko da zentrala ilegala bada? Eraikuntzak, prozedimentu eta argitalpen irregulartasunak izateaz gain, bestelako lege haustek ere izan ditu. Zergatik ez da aspalditik (1995eko otsailetik sortutako PORN "Plan de Ordenación de Recursos Naturales" delakoaren bitartez) Aizkorri Parke Naturala izendatu? Parke Naturaletan zentral eolikoek tokirik ez dutelako. Aurretik egin zentrala eta gero parke natural izendatu eta ez alde-rantziz. Mendi-larre kategorian duten zelaie-tan, LAA-DOT ("Lurralde Antolamendurako Artezpideak-Directrices de Ordenación del Territorio") arauak aplikatuz ezin bada zentralik eraiki, zergatik eraiki dute Elgea Mendikoa?

Eta zeintzuk dira Zentral Eoliko hauek eraikitzeke benetako arrazoiak?

1.- Energia ekoizpen edo esplo-tazio hutsa: egungo teknologia erabiliz eraginkortasunik onena eskaintzen dituzten mendiak inbaditu eta sakeatuz elektra indarra sortzen duten 60 m garai diren aerosorgailuak ipini nahi dituzte han eta hemen.

2.- BBV, Iberdrola, Gamesa Eólica enpresa pribatuek eta Eusko Jaurlaritzak (Ente Vasco de Energía delakoaren bitartez) izendatutako akordioaren bidez mendia esplotatzea. Elgeamendin, esaterako, orain arte egindako Ingurugiroaren gaineko Eraginaren Azterketa (IEA) ez da batere serioa izan eta tramite huts bihurtu da. Eta ez zaie berdin urte batzuk itxarotea, nahiz eta etorkizunean teknologiak garaiera baxuagoetan (ez 800 metrik goragoko mendietan) zentral eraginkorrek eraikitzea ahalbidetuko duela aurrikusten den (1980an, Kv eolikoak 600.000 pezetatan zegoen; gaur egun 138.000 pezetatan besterik ez; zenbat balio izango du 2005. edo 2010. urtean?).

3.- Ireki nahi diren 19 zentralak, EAEn kontsumitzen dugun energia kopuruaren %4 besterik ez lukete sortuko. Merezki al du 19 mendilerro hauek apurtzea %4 horren trukean? Zenbat zentral eoliko beharko genuke orduan Garoña ixteko? Urtetik urtera erabilitako energia kopurua handitzen bada, zer irabazten dugu 19 zen-

tral eoliko hauek eraikitzearekin?


4.- Enpresa handiei ez zaie komeni instalakuntza txikiagoak eraikitzea, sakabaturik, baserrietan, auzuneetan, instalatuak izango lirartekeenak: instalakuntza txikiagoek ingurugiroaren kontrako eragin txikiagoa dute.

Une hauetan, Izazpi-Samiño-Oleta mendi-lerroa konpartitzen duten Zumarraga, Azkoitia eta Azpeitiko Udalek ez dute EELPS-ren berririk jaso izan. Bitartean, EAeko Mendi Federakundeetako eta Mendi Taldeotako lagunok lanean darraigu. Gogoratu, zentral eoliko hauen kontra egotea ez dela energia eolikoaren kontra egotea, zentralok eraikitzeke kokaleku egokiak bilatu behar baita. Zuk ere lagundu nahi baduzu edo atxekimendurik egin nahi baduzu honako helbideetan zure datu pertsonalak eman ditzakezu:

-Pertsonalki: Ostadar M. T.-ko egoitzan (Jai-Alai 4 behea, Zumarraga).

-Telefonoz: Gipuzkoako Mendi Federakundeko Telefono Berdean (943.76.02.64).

-Interneteko Elgea Stop!
<http://elgea-stop.8m.com> helbidean.



Jendea aerosorgailu albotik pasatzen.

Jonmikel Intsausti
Mendizalea eta
Gipuzkoako Mendi Federakundeko
Ingurugiro Batzordeko kolaboratzailea.

MURUA

Oinetako konponketa

Larruzko erropen konponketa.
Guraiza, labana... zorrozketak

Labeaga, 37 URRETXU
Golden plazaletan

Secundino Esnaola, 16 B
Tel: 943 72 16 63
ZUMARRAGA

HAR GOR
ILEAPAINDEGI MIXTOA
Nekolalde, 3 baxua
☎ 943 72 44 42

HARGOR
Artisautza - arropak - opariak
Nekolalde, 1
☎ 943 72 56 58

BAPRI
ANIMALIADENDA

Txoriak, arrainak, katuak, dordokak

Urdaneta, 3 ☎ 72 61 13
ZUMARRAGA

KABA
JATETXEA

Legazpi, 5
☎ 943 726274
ZUMARRAGA

Maiatzeko agenda

-Haur eta gazteentzako ekintzak

-Larunbatetan festara

Haurrentzako eskulanak, kaskazuriren eskutik. Larunbatero Urretxuko Kultur Etxean, dohainik, 11etatik 1ak arte.

-Museoaren Nazioarteko Eguna

-Maiatzaren 18an, arratsaldeko 5etatik 8etara eta Urretxuko Museoaren ondoko lorategian haurrentzako tailerrak izango dira. Ikastetxeetan gonbidapen orriak banatuko dira eta hauekin doazen hurrei harritxo bana emango zaie.

-V. Liburu Azoka

-Maiatzaren 5etik 14ra:

-Maiatzak 5, ostirala:

Eguerdiko 1etan: Prentsaurrekoa
Zumarragako Udaletxean.
13:30etan: Azokari hasiera ematea.

-Maiatzak 6, larunbata:

11:30etatik 13:30etara:
-Haurrentzako jolasak.
-Musika eskolako trikitilarien emanaldia.

-Maiatzak 7, igandea:

12:30etan:
- "Antxiñako Ama" txistularien saioa.
19:30etan:
-Zuhaitzaren Soinua txalapartariak.

-Maiatzak 13, larunbata:

11:30etatik 13:30etara:
-Haurrentzako jolasak.
-Musika eskolako trikitilarien emanaldia.

-Maiatzak 14, igandea:

12:30etan:
-Urretxuko txistulari taldearen saioa.
19:30etan:
-Zuberoko Lagunak taldearen kontzertua.

Ordutegia:

Astelehenetik ostiralera:
11:30-13:30 eta 17:30-21:00.
Larunbat eta igandetan:
11:30-14.30 eta 17:30-21:30.

Apirilaren 17tik maiatzaren 3ra bi herrietako liburutegietan herri-tarrek eramandako liburuak jaso dira eta Liburu Azokan salgai jarriko dira oso salneurri merkean. Aterako den dirua eta sobratutako liburuak Nicaraguara bidaliko dira, bertako liburutegi bat osatzeko.
Euskarazko liburuak ikastetxeetan banatuko dira.

-Musika

-Marife Nogales mezzosopranoaren kantaldia

Maiatzaren 20an, larunbata, 19:30etan
Legazpi Dorretzeko areto nagusian.

-Secundino Esnaola Musika Eskolaren kontzertu zikloa (Legazpi Dorretxean, 18:30etan).

Maiatzak 22: Txistu, trikitixa, pandero eta txalaparta.

Maiatzak 23: Haur taldeak.
Maiatzak 24: Kamarako musika.
Maiatzak 25: Rock taldeak.
Maiatzak 26: Kamarako musika.

-Zumarragako Musika Bandaren kalejira

Maiatzaren 14ean, Eitzan.

-Erakusketak

-Itarte Etxean

-Maiatzaren 5etik 14ra: Ikastolako VII. Ingurugiro astearen barruan berrerabilitako materialez eginko eskulanak.
-Maiatzaren 18tik 28ra: Txaro Poloren "Izarren bidea. Santiago-bideak, Gipuzkoan barrena: argazkiak".

-Juan de Lizarazu erakusgelan

-Maiatzaren 12tik 21era bitartean: Antzerki Asteko kartela aukeratzeko antolatutako lehiaketara aurkeztutako lanen erakusketa.

-Kirolak

-Iñaki Beitiaren omenezko iraupen luzeko IV. mendi ibilaldia.

Maiatzaren 14ean. Informazioa eta izen-emateak: Urretxuko Aldiri Kirolegian eta Zumarragako Ostadar Mendi Elkartearen.

-Lehiaketak

-Narratiba eta poesia Iparragirre sarietarako eta bertso paper, komiki, pintura eta argazki lehiaketarako oinarriak Zumarragako udaletxean eta Urretxuko Kultur Etxean.

-Eskolarteko bertso-paper lehiaketa. Epea: maiatzaren 12a.



Adrian, Errusiatic eguraldi hobe bila ihesi Euskal Herrira etortzea ere! Goitik behera bustiko zinen azkenaldi honetan! **Zorionak!**



Antziñe Larreategi, txima horiekin dirudin heavy! Ileapaintzaileak kontenedorea beharko du zuri moztutako ilea biltzeko! **Zorionak!**



Jose Angel, argazkia okertu behar izan dugu, buruarekin lurra jotzeko zorian zeunden eta! Argazkia atera behar dizutenean lokartzea ere! **Zorionak!**



Olatz, ezkututzen saiatu zaren arren, papparaziak harrapatu zaitu eta aurki zure amaran-te berriaren berri izango dute denek. **Zorionak!**



Aitor, Erreal mailaz jaitsiko ez delako al zaude horren pozik? Badaezpada ere ez zaitz oraindik gehiegi poztu! **Zorionak** eta ondo ibili.



Celia, zer egiten duzu ezkutuan? Hurrengoan aurrealdean jarri zaitetz eta besteak jar daitezela zure mototxaren atzean. **Zorionak** eta ondo pasa urtebetetze eguna.



Josune, Eliansiiito bezala kubatarra al zara zu ere? Euripean bizi garen euskaldunon inbidia zara! **Zorionak!**



Sandra, hori dun hori neska zentzudun eta arduratsuen itxura! Noizean behin parrandaren bat egitea ondo zegon, neska! **Zorionak!**



Aitor, hik daukak hik parrandazale piura, gustura egongo dituk familikoak hirekin! Urtebete zaharragoa haizela eta ez al haiz formaldu behar? **Zorionak!**



Cristina, "Un, Dos, Tres, responde otra vez"eko azafata dirudizu betaurreko horiekin. **Zorionak** eta ondo ibili!



Josune, okulistarengana joan beharko gara badaezpada ere, ez zaitugu oso txukun ikusten eta. **Zorionak** eta ondo pasa urtebetetze eguna.



Sofia, nahiz eta urtebete zaharragoa izan mantendu ezazu irria. **Zorionak** eta segi orainarte bezain irrifartsu, osasuntsua omen da eta.



Aitor, beste lau urtetan "Españababien" esateko aukera duzuela eta gustura egongo zara... (Ez al dizute sekula esan PPko Urkijoren antza duzunik?). **Zorionak!**



Eukene, zure ahizpa bezain adarjotzailea al zara? Ikusten zaitugunean kontuz ibiliko gara badaezpada ere! **Zorionak** eta ondo ibili!



Kakun, ijito jatorrikoa al da zure izen xelebre hori? **Zorionak** eta pasa zaitetz hemendik egunen batetan etorkizuna eskuak bezain beltza dugula esatera. **Zorionak!**



Txantxi, alaitu ezak aurpegi hori motel, Oñatiko bai, baina geltoki ondoko etzekoa dirudik eta! **Zorionak!**



Alain, etzazu txintxo aurpegia jarri, jada ez duzu inor engainatzen eta! **Zorionak** eta primeran pasa ezazu urtebetetze eguna.



Gaizka, mototik jaisten kaskoa kendu beharra zegok motel! **Zorionak** eta ondo pasa urtebetetze eguna!



Mari Carmen, pegatinak jartzera etorri ez eta gutaz farre egiteko adorea al duzu gainera? Harrapatzen zaitugunean kenduko dizugu irrifarrea... **Zorionak!**



Hemen dugu **Vitoriano**, beti bezain xano. **Zorionak**, ondo pasa urtebetetze eguna eta segi orainarte bezain fin.



Alberto, ez haiz hi berehalakoan galduko, ez! Oraingoan ere Goiko Txabolan afariaren bat antolatzen hariko haiz! **Zorionak** eta ondo ibili!



Zorionak Gregori! Inguruan dituzun guzti hauei kostako zaie zure adinera heltzeko zuk bezainbeste meritu egitea!



Maria Dolores, kuxkuxera! Zeri so ari zara horren konzentratirik? Lequioren argazki famatuei begira zaudela dirudi! **Zorionak** eta ondo pasa urtebetetze eguna.



Xabier, ez zaitetz tristetutu motel! Nahiz eta bihurri kamar portatu zaren zer edo zer oparituko dizute. **Zorionak** eta ondo pasa urtebetetze eguna.



Bihurri galanta egina zauden arren, lasai **Alberto!** Jasoko duzu zerbaiz zure urtebetetze egunean. **Zorionak!**



Iago, kamera bat lehenengo ikusteak ala aita horren zatarrak izateak harritu al zaitu? **Zorionak** eta primeran pasa ezazu urtebetetze eguna.



Maria Jesus bihotzekua... (sentitzen dugu baina Maria Jesus guzti beti ergelkeri berbera jartzeko ohitura dugu). **Zorionak!**



Imanol, txapela buruan eta irrifarrea ahuan, hi haiz hi mutil deabra! **Zorionak** eta ondo ibili!



Amaia, ondo dago oportetara eguzkia hartzera joatea, baina gainontzekoak ere asmo berdinez joan ziren eta eguzki izpirik gabe utzi zenituen! **Zorionak!**



Iban, urteekin idazle ospetsua izango zarenean itxura duzu. Gustura irakurriko ditugu hemendik urte batzutura zure iritzi artikulua Otamotzen. **Zorionak!**



Martintxo, Martintxo... eziezaguzu horrela begiratu eta ibili zaitetz txintxo! **Zorionak** eta oso ondo pasa urtebetetze eguna.



Maite, Maite... ez ni utzi hemen kaiean... Maite, Maite... zu nire bihotzean... Goiz hasi zara gero bihotzak hausten! **Zorionak** eta ondo pasa urtebetetze eguna.



Ana, horrelako neska behar ditugu aldizkarian: argazkian txintxo txintxo ateratzeko prest daudenak. (Nahiz eta adarra jotzeko aukerarik eman ez). **Zorionak!**



Iker, alaitu ezak aurpegi hori motel, urtebete zaharragoa haizen arren neskek ez diate orain baino kasu gutxiago egingo eta! **Zorionak!**



Miren, ea zure lagunak bezain fina zarela erakusten duzun eta egunen batean pegatinak jartzera etortzen zaren. **Zorionak** eta ondo pasa urtebetetze eguna!



Mikel, oraingoan ere inguruko neska guztiak aztoratzen al habil? Hi haiz hi "playboy te doy y me voy"! **Zorionak** eta atera hitzak garagardo batzuk.



Ane, ea gaiean duzun narengandik ikasten duzun eta argazkilaria iri arreta handiago jartzen diozun! **Zorionak!**



Janire, hori da hori marimaistra itxura duzuna! **Zorionak** eta orainarte bezain txintxo eta fin segi!



Nerea, familian botea jarri beharko duzue Amaia kotxe berria erosteko, zeharo gogai-karri jartzen ari da eta! **Zorionak** eta ondo ibili!



Maialen, horiek dira horiek mototxak! "Look" aldaketak mesede egin zizun gero! **Zorionak** zuri eta Joni eta ea lehen-gusuok gonbidatzen gaituzuen.

Pilota eskolak: lanean jo eta ke

Maiatza heltzearekin batera, hemen dugu afizionatu mailako pilota txapelketa nagusia: Herrien Arteko Pilota Txapelketa hain zuzen ere. Aurten Urretxuk ez du talderik izango, gazteak oraindik ez baitaude nahikoa prestatuak. Zumarragak, ordea, aurten ere parte hartzeko asmoa du. Gure ordezkariak garai hobekak ezagutu dituztela esan beharra dago. Izan ere, urretxuarrak finala jokatzen heldu ziren eta Zumarragarrek bitan irabazi dute txapelketa. Ea hemendik urte batzuetara bi herriotako ordezkariak berriz ere pilotazaleak pozteko aukera eskaintzen duten.

Hala, pilota eskoletan horretarako lanean tinko ari dira, baina



Urretxuko pilota eskolan 7 eta 14 urte arteko 45 mutiko inguru eta 17-19 urte bitarteko 11 lagun dabilta pilotan jo eta ke. Miguel Lasa delegatuak duela 10 urte hartu zuen eskolaren ardura eta urte batzuetan bakarrik lan egin duen arren, egun etorkizuneko pilotariak izan daitezkeenekin lan egiteko Joseba Urmeneta, Juanjo Sagastibeltza, Jesus Alarzia, Paco Cruz, Ramón Ormazabal eta Iñaki Ibarluzearen laguntza du. Urte hauetan guztietan pilota eskolara geroz eta gazte gehiago hurbiltzea lortu dute eta pilotarien prestaketa ere asko aldatu da. Honetan zeresan handia izan du Iñaki Ibarluzea prestatzailearen lanak. Bera heldu baino lehen entrenamenduetan pilotan soilik aritzen ziren, orain, berriz, beroketak, korrikak, errondoak... garrantzi handia hartu dute eta entrenamenduetan partidu gutxiago jokatzen dituzte. Prestakuntza fisikoak hartu duen garrantzia dela eta, pilota eskolakoek Ederrena pilotalekuko harmailen azpian gimnasioa egin nahi dute, ariketa fisikoak egitera kiroldegira joan beharra baitute.

rik atera ezin izan duten kadete mailan gazte gutxi dituztela, hemendik urte batzuetara talde polita izango dutela uste dute. Izan ere, 8-9 urteko mutikoen maila ona dute eta egun jubenil mailan daudenekin zorte handia izan dute, oso gazte zirela elkarrekin frontoira hurbildu eta pilotan jokatzen jarraitzen baitute.



haurrak pilotalekura erakartzeko gure herriotan tradizio handiagoa duen futbolarekin "borroka" latza dute. Pilota eskoletako arduradunek pilota geure kirola denez, haur guztiek probatu beharko luketeela uste dute eta probatuz gero "engantxatu" egiten duela diote. Gazteak pilota munduan gerturatu eta barneratzeko txapelketek garrantzi handia dute eta bi herriotako pilota eskoletako pilotariek txapelketa ugaritan parte hartzen dute. Zaharrenean denboraldiari Interclubs txapelketak ematen dio hasiera irailan eta otsailetik aurrera 4 lehenek Euskal Liga jokatzeko dute, non kadete, jubenil, junior eta senior mailako 7 euskal probintzietako ordezkari one-

nek parte hartzen duten. Aurten Urretxuko pilota eskolako bikote batek Euskal Ligan sartzea lortu du. Gainontzekoek Federazio Txapelketan parte hartzeko aukera dute eta hau amaitu ondoren Herrien Arteko Pilota Txapelketa hasiko da. Txapelketa hauetaz guztiez gain herrietako txapelketa ezberdinak daudenez, ezin esan daiteke pilota eskoletako gazteek aspertzeko aukerarik dutenik.

Hala ere, pilota eskoletako arduradunak kezkatuak agertzen dira. Izan ere, Foru Aldundiak 16 urte arteko gazteek pilota eskola kirolaren barruan egitea nahi du eta gazte hauentzat txapelketak antolatzea

debekatua du. Baina pilota eskoletako arduradunen esanetan, eskola kirolean pilotan aritzen diren gazteek ez dute zaletasunik hartzen eta beraiei oso zaila zaie gazteak pilota mundura erakartzea, partidurik jokatu ezean gazteenak aspertu egiten baitira. Hori dela eta, 16 urte bitarteko-entzat zenbait partidu antolatzen dira Gabirian, Urretxun (Gabon Kopa) zein Eitzan.

Honetaz gain, apirilaren amaieraz geroztik Urretxuko pilota eskolak antolaturik San Juan txapelketa jokatzeko ari da. Bertan Herrien Arteko Pilota Txapelketan jokatzeko ez duten herrietako pilotariek jokatzeko jarraitzeko aukera eskaini zaie.

Zumarragako pilota eskolan 30 pilotari inguru dabilta gaztetxo, kadete, jubenil eta senior taldeetan banaturik. Gazteenek astelehenetik ostegunera entrenatzen dute eguneko ordu eta erdi Gorka Rodriguez eta Juanito Urbizu irakasle dituztela eta senior eta jubenilek, berriz, astelehen eta asteartean entrenatzen dute bi ordu. Zumarragako pilota eskolan, Urretxukoan ez bezala, ariketa fisikoak ez dituzte gehiegi lantzen.

Zumarraga Herrien Arteko Pilota Txapelketan tradizio handia duen herria da eta bitan txapelketa lortu du, baina azken urteotan aspaldiko arrakastak lortu ezinik dabilta. Dena den, ez diote etsi eta aurten ere taldea aurkeztuko dute. Kadete mailan Iñigo Biana, Joxe Mari Otxoa eta Iban Lesmesek parte hartuko dute, jubeniletan Mikel Rodriguez eta Alejandro Jiménezek eta seniorretan Urretabizkaia anaiek, Erostarbek, Pueyok, Rodriguezek eta Intxaustik. Maila bakoitzean ahalik eta pilotari



gehien inskribatzen saiatzen dira, arrazoi bategatik edo besterengatik zenbaitek jokatzeko izango ez balute bikote bat ziurtaturik izan ahal izateko.

Azken urteotan bezala, Zumarragarrak helburu apalez aurkeztuko dira Herrien Arteko Pilota Txapelketara eta helburua talderen bati irabaztea da. Horretarako lehenengo aukera Bergararren aurka izango dute. Ea zortea duten!



Itziar Oñatibia

Itziarrek aitortu digunez, txikitari moja izan nahi zuen, noski, moja eskolan ikasi izanak eta bere aitona herrian biztanleen erdia osatzen duen komentu bat egoiteak zeresanik izango zuen horretan. Dena den, txikitako bokazioa laster ahaztu zitzaion eta odontologia ikasketak burutu zituen. 18 urte daramatza lanbide honetan eta ordutik hona herritar asko eta asko pasa dira bere kontsultatik. Gaixorik txarrenak gizonezkoak direla dio eta askotan berarengana lasai asko doazen umeak gurasoek urduritzen dituztela ere bai.

lazko udal hauteskundeetan Urretxuko EHren zerrendan aurkeztu zen eta udaletxeko lana nahiko gogorra egiten ari bazaio ere, esperientzia aberasgarria izaten ari dela dio. Honetaz gain, Udal Euskaltegian bere euskara maila hobetzen ari da eta ikastea gogorra bada ere, primeran pasatzen dutela dio.

-Zer izan nahi zenuen umetan?

Moja.

-Aisialdian zer egitea atsegin duzu?

Irakurtzea, musika entzutea, mendira joatea...

-Bizitzeko toki bat?

Aldatz, Lekunberri ondoan dagoen herri txiki bat da. Aitona bertan jaio zen eta Aralar alboan duen oso herri polita da. Ahal dudan guztietan bertara joaten naiz.

-Goxoki asko jaten al dituzu?

Ez eta ez dira jan behar, oso kaltegarriak baitira. Umeei astean behin goxokiak ematearekin nahikoa da, azukreak adikzioa sortzen baitu eta gero ezin baitzaie ohitura kendu.

-Zeintzuk dira dentistei beldur gehien dietenak?

Gizonezkoak emakumezkoak baino okerragoak dira. Bestalde, hurrek beldur gutxiago digute. Gurasoak izaten dira askotan haurrak urduri jartzen dituztenak.

-Nor anestesiatuko zenuke?

Mayor Oreja.

-Aho polita duen famaturen bat?

Anne Igartiburu.

-Eta oso itsusia duena?

Jesús Hermida, horts asko falta baitzaizkio.

-Nor bidaliko zenuke euskaltegira?

Miguel Sanz.

-“Gustukoa zatzaizkit” ala “gustukoa zaizkit”?

Bigarrena esango nuke.

-Zer nahiago duzu, haginak ateratzea ala Udaleko ple-noetara joatea?

Haginak ateratzea.

-Nor gustatuko litzaizuke ezagutzea?

Madrileko Foroko kidea den Jávier Sádaba filosofoa. Oso pertsona interesgarria eta orekatua iruditzen zait.

-Norekin pasatuko zenuke asteburu bat?

Lagun onekin.

-Ilehoriak ala beltzaranak?

Antzera, beharbada morenoak gehiago.

-Egindako azken oparia?

Koinatari oparitu nizkion galtzontziloak.

-Eta jasotakoa?

Poltso bat.

-Data bat?

San Martin eguna asko atsegin dut, udazkena oso gustukoa baitut.

-Mutil izen bat?

Xabier.

-Zein egunkari irakurtzen duzu?

Gara.

-Gustuko telebista saioa?

Goenkale sarritan ikusten dut.

-Bereziki gorroto duzuna?

Furor.

-Liburu bat.

Carlos Castanedaren Viaje a Ixland.

-Filme bat.

El piano.

-Gustuko abestia?

Itoizen Lau teilatu.

-Soinu bat.

Euriarena.

-Usain bat.

Itsasoarena, elizetakoa ere asko atsegin dut.

-Ukitzeko...

Artisau lanak. Erakusketa batera joaten naizen bakoitzean eskua joaten zait.

-Janari bat.

Arroza, edozein modutan prestatua.

-Ura ala...

Ura bai, baina ardo beltza ere bai.

URRETXU
ZUMARRAGA



IKASTOLA
KOOP. ELK.

Garaialde Lizeoa

BATXILERGOAK, D EREDUA

Natur eta Osasun Zientziak

Giza eta Gizarte Zientziak

Lau ibilbide: Zientifiko-Teknikoa

Osasun Zientziak

Giza Zientziak

Gizarte Zientziak




Labeaga kalea 25, Urretxu

☎ 943 72 21 12

Bulego ordutegia: goizeko 9etatik 11ak arte



SUKALDE ERAKUSKETA



Udala enparantza, z/g
☎ 943 79 00 43
20500 ARRASATE

Ipeñarrieta, 5
☎ 943 72 50 75
20700 URRETXXU